

Noqua!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko ekainaren 15a VI.urtea

Usurbil, 115. zenbakia



Ikasleak udaran
lan egin nahian

ELDUAIEN

HIZKUNTZ ESKOLA

Aurtengo udan ere egunero emango ditugu ingelesko klaseak!

✕ ORDUTEGIA: Goizez

✕ IKASTARO TARIFA: Astean 5 ordu,
hileko 14.000 pezeta

OHARRA:

- Matrikula doan
- Klaseko materiala doan



Zatozte
gurekin!

Zubiaurrenea, 6

Telf eta faxa: 943 37 14 02



**TXIMINIA
ALTZARIAK**



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

**Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia**

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

Txerrimunik ordainetan



Zorionak Xabli! Ekainaren 11ean zure urtebetze eguna izan zen. Ez dugu esango zenbat urte bete dituzun, badaezpada ere. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partez!



Zorionak Ramon! Urteak aurrera egiten badute ere, ez du axoliki! Oraindik sasoiari baitzaude bilobarekin pelota partidu batzuk jokatzeko. Zorionak etxekoan partez!



Zorionak Oihana! Datorren ekainaren 23an beteko dituzu 17 urte eta hori ospatu beharra dago. Ondo pasako duzulakoan muxu haundi bat etxekoan partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: ekainak 29

Ekartzeko azken eguna: ekainak 22

Hildakoak



2001-06-04

Felisa Garate
Urbistondo

86 urte

Egiluze-ixiki baserria

Ekaina

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
					1	2
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31



Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuarteak badabilkizu edo eta herriko zerbaitez hitz egin nahi baduzu guk ikamikan foki bat egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40 *	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40 *	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

*Orioraino **Aiaraino
■ Asteburutan

*Oriorik **Aiatik
■ Asteburutan

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09



• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udarregi ikastola	36 12 16
• Udarregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epategia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76



Argitaratzailea

Noaqua! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaqua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaqua>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karnele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbieto, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitz Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zaloa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idola Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaqua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaqua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan



Euskara ez da galduko...

Xabier Pikabea

Euskara ez da galduko Frantzia eta Espāñako estatuek hala nahi dutelako, euskal instituzio eta erakundeek oztopa eta eragozten dutelako baizik.

Euskara ez da galduko Frantzia eta Espāñako estatuek euskararekiko jokaera nardargarria erakusten dutelako, hainbat euskal estamentuk ildo beretik jokatzeko duelako baizik.

Euskara ez da galduko folklore ezarri nahi digutela, egunerokotan horrela jotzen dugulako baizik.

Euskara ez da galduko lege sendorik ez daukalako, eskasena ere betetzen ez dakigulako baizik.

Euskara ez da galduko ikasten ez dutelako, ez dakigulako baizik.

Euskara ez da galduko "bere" egin nahi ez dutelako, egiatan "geure" egiten ez dugulako baizik.

Euskara ez da galduko etorkizuneko nahi ez dutelako, presentekoa egin nahi ez dugulako baizik.

Euskara ez da galduko geldotasuna ezarri nahi dutelako, eguneroko "korrika" egiten ez diogulako baizik.

Euskara ez da galduko arerioak dituelako, batzen ez gaituelako baizik.

Euskara ez du galduko gaurko esperantzak, bihar-koak baizik.

Euskara ez da galduko besteek nahi dutelako, geuk nahi dugulako baizik.

Euskara itotzen bada, geuk itoa izango da; ez beste inork: arnasik eman ez diogulako. Bihotza eman nahi izan ez diogulako. Arretarik jarri ez diogulako. Bizitu ez dugulako. Hitz bakar batez, eta besterik gabe, berarekiko jokaera gaitzezgarrienak erabili ditugulako, egunerokoetatik baztertuz.


"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik" (JosAnton Artze).



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Azala:

Egunkari eta aldizkarietan ateratzen diren lan poltsak

EAJ-PNV usurbildarrei informatuz

Hauteskunde garaia igaro da, eta berriro udaletxeko ika-mikataraz itzuli behar. Noaua hamaboskarian, martxoaren 23koan, Usurbilgo Euskal Herriarrok EAJ-PNV-ri erantzunez egindako artikulua, hauxe diogu: ezinaren edota arrazoigabekoen indarra: intsultoa

Ez da hori gure estiloa. Ezta izango ere. Eta aurrez egindako gure azken bi artikuluetan ez dugu inor iraindu, ez intsultatu, eta bide hori jarraitzeko asmoa dugu aurrerantzean ere. Bai, baina, herria informatu, eta ahalik eta ondoen informatzen saiatuko, gainera; hauxe baita, Usurbilgo udalean oposizioan gaudenez gero, besteak beste, geure betebeharragusiaren bat: Usurbil herriari udaletxeko bertako informazioa ahalik beteena eta osatuena ematea. Eta, besterik gabe, honela egingo dugu. Ziur.

Orain arte esandakoak hauek dira:

1- Kultura, Euskara, eta Gaztedia teknikari lanpostua aipatu dugu. Gai honetan EHk agertu

duen postura itxia ere salatu nahi dugu. EAJ-PNVn, eta Usurbilen Euskara eta Kultura mailan mugitzen diren hainbat herritarren iritzia aurrera dabil EHko zinegotzi taldea. Euskara teknikari bat eta kulturako teknikari baten beharra ia denok ikusten dugun arren, EHk, bere "heldutasun politikoaren" adierazgarri, ez du jaramonik egingen, eta hiru postuak pertsona bakar batek bete ditzala nahi du. (2001-01-15 aholku batzarrean, bi teknikariren alde: 14 ordezkari; teknikari baten alde: 4 ordezkari, horietako hiru EHko zinegotziak).

2- UEMari agertutako txostenean, EH taldeak, udalaren izenean, ez du udalean Euskararen benetako egoera zein den azaldu nahi. EPA (Educación para adultos) eta Hastapen Profesionaltako irakasleen euskara egoera bertan agertzen ez duelako.

Informe honekin EHren Euskara politika akatsez josia dagoela agerian gelditzen da gure ustez.

3- Orain arte Euskara Teknikari lanak egin dituen langilearen merezimenduak ez ditu kontutan

hartu nahi EHk, aldiz, hastapen tailerrean jardun den pertsonarenak bai. Horregatik iruditzen zaigu azken aldian ateratzen diren lanpostuetarako oinarriekin kanpokoak direnei udalera sartzea erraztu nahi dietela, herrikoak direnen kalterako.

4.-EHk hasieratik, Atallu industrialdearen planteamendua oker enfokatu duela iruditzen zaigu. Gainera duela gutxi, Atalluko lur jabeei, lehen "Justiprezioan" baino diru gutxiago eskaini zaie beren lurrengatik. Beste aldetik, segurtasuna eta inpaktu ekologikoari buruzko azterketen eskaerei ez diete jaramonik egin. Espero dezagun hain arinki hartutako erabaki hauek ez dietela inolako ondorio kaltegarrikerik eragingo erribera inguruko biztanleei (Santueña).

Guzti honetaz edonork zerbait jakin nahi balu edo zalantzarik badu, hurbildu dadila guregana eskuetan ditugun udal txostenak eskuratuko dizkiogu eta.

Honenbestez eta gauzak argitu ditugulakoan agur! erdi.

Lanbide Hastapenerako ikastaroak

Zuregana zuzentzen naiz udalak Lanbide Hastapenerako ikastaro hauen artean aukeratzeko eskaintza luzatzen dizula adierazteko: ileapaindegintza-edergintza, sukaldaritza-gozogintza, erakuntzako teknika berriak, zurgintza eta egurra, automobilaren karrozeria eta pintura, galdaragintza eta automobilaren mekanika.

Lanbide Hastapenerako ikastaroak lanbide batean hasteko aukera ematen ditu. Gainerako ekintza desberdinetan parte hartzea eskaintzen dizu: D.B.H. graduatua lortzeko

laguntza, Lanbide Heziketako erdi-mailako sarbide probak prestatzea, oinarriko heziketa, kirola, lanbide-irteerak, txangoak... Ikastaroa bukatutakoan, aukeratutako ezpezialitatean inguruko enpresetan praktikak burutu ahal izango dituzu. Laburbilduz, gure asmoa lan-munduan sartzeko behar dituzun instrumentu, ahalmen eta ezagutzak eskaintzea da.

Amaitzeko esan, izena emateko epea irekita dagoela ekaina eta uztaila bitartean monitore soziolaborearen bulegoan 8.00etatik 11.0etara.

Idoia Beloki



RAMON BARCENILLA

. Pikor- pintura eta goitele lanak
. Papereztatze-lanak
. Pintura-lanak oro har

Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

WITZANGA
HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskal presoak etxera!



BORDATXO EDARITEGIA

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

SANTUENEA

Datorren urtera arte

Agurtzane Solaberrieta



Asteburu honetan amaitu-ko da Plis, plas, txalo ta jolas egitaraua, herriko auzo gehienetatik pasatu den etxe-ko txikientzako programa. Santuenean ere izan zen, joan den maiatzaren 26an. Auzoko eskola txikian ikusgai izan genuen "Lehoi baten bila" antzezlan, auzoko zein herriko 20 bat haur bildu zituena. Ondoren txokolatada ere izan zen, haur zein gurasoentzat merienda soberan izan zen, beraz.

Asteburu honetan izango den Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazen emanaldiak emango dio amaiera *Noaia!* Kultur Elkarteak, Udalak, Jai Batzordeek eta Eskola txikiek antolatutako egitarauari. Iaz bezala, aurten ere zorteko dira Kalezar aldean,

Sanjuanen aitzakian Plis Plasen amaiera bertan izango baita, herriko frontoian beharrean.



Gure auzoko haurrak ere ziur gustura igoko direla Kalezar aldera, guztiek ere oso maiteak baitituzte pailazo ezagunak. Agian noizbait gure auzora ere etorriko dira eta hala Santuenea ezagutzeko aukera izango dute, Euskal Herriko txoko gehienetan ezagunak badituzte ere, gurea ez baitute oraindik bisitatu.

Aberatsa da haurrentzat beren auzoan ere ondo pasatzeko aukera izatea, bestela ere oso maiz jotzen baitute herriko kaxkora jolastera. Hala-koak maizago eginez gero, ona litzateke bai haurrentzat eta baita auzoentzat ere, pixkanaka-pixkanaka hauek berpizteko saiakera egin beharra baitago.

URDAIAGA

Kea eta zuhaitzak

Alazne Begiristain



Ekainean ere sartu gara, ia urte erdia pasatu zaigu konturatu ere egin gabe!

Gaur, ostirala, Andatza aldean sua ikusi dut. Ai ama! Ez da

ba suterren bat izango?. Baina segituan konturatu naiz ezetz, su txikiak ikusten baitziren elkarrengandik urrun. Pentsatzen jarraitu dut... indioak ez ziren ba etorriko gure mendi hau inbaditzera!

Hipotesi hau, pentsatu orduko baztertu dut. Amarengana jo dut. Eta honek azaldu didanez, mendia garbitzen ari dira. Nola ez zait, ba, niri ere bururatu?



Azterketak, lanak entregatu beharrak... ez didate batere onik egin, pentsatzeko gaitasun handirik gabe utzi naute, pentsamendua geldirik, nekatuta.

Beno, txorakeriak alde batera utzita, aurreko alean Eide-
rek kontatu zigun Andatza bideko pinudia ateratzen has-
tera zihoazela. Ba, zuhaitz batzuk, behintzat, atera dituzte eta orain zabortegei pareko kurban daude enborrak pila handietan jarrita. Egia esan, hor ez dute enbarazurik egiten, baina, ez ote dira bata-bestearen atzetik pirika-pirika erortzen hasiko?

KALEZAR

Sanjuan!

Ainara Uribe



Badatozela, badatozela, badatozela guztiak hain maiteak ditugun Sanjuanak. Ostiralean hasi eta datorren igandera bitartean, hilak 24a, ez da festa girorik faltatuko gurean, bestela ere jaiarako grina soberan izaten baita hemen goialdean.

Aurtengoan Sanjuan bezpera baino astebete lehenago abiatuko zaigu jaiak, aizue, usadioak ere aldatu beharra daukela bizirik iraun dezaten. Kritikak ere jasan behar izan dituzte Jai Batzordekoek, Hernaniko festari aurre ezin egin eta jaiak aurreratu dutelako. Baina Hernanikoak lehiakide gogorrek dira Sanjuan kontuetan eta,

gainera, festa izan bada 23 eta 24ko asteburuan, hori bai, gauez parrandarako aitzakiarik izango ez den arren; normalean ez da aitzakia gehiegi behar izaten, badakizue.

Arratsaldeko 18.00etako txupinazoak emango dio hasiera festari, ondoren buruhaundiak



izango dira eta gauean, berriz, Akelarre, garai zaharrak gogoratzeko. Gorritik ez du huts egingo aurtengatik eta larunbatean eskainiko du bere showa auzoko plazan. Mus txapelketak arratsaldea hartuko du eta gualdera Izotz taldearen musikak alaituko ditu bazterrak. Igandean, berriz, txikientzat egun handia izango da, Takolo, Pirritx eta Porrotx bisitan izango baititugu. Eta hilaren 23an, San Juan bezpera, urteroko eskea, bertsolari eta trikitalariek lagunduta. Mezak, auzoko gazteen arteko herri kirolek eta auzo bazkariak itxiko ditu aurtengo Sanjuanak igandean, hilaren 24an.

ATXEGALDE

Lekuko hutsala

Amagoia Mujika



Nire auzoak idazten hasi eta kritika kutsuak hartzen du nire jarduna. Baina nire esanek norbait minduko balute, argi esan nahi nioke lehenengo kritika nire buruari zuzentzen diodala. Nik, beste auzotar askok bezala, aspaldi utzi bainion Atxegalden bizitzeari. Niretzako auzoa lotoki soila da, onartzen dut. Orain eguneroko eginbeharren aitzakiarekin hasi eta ez dut inor aspertu nahi, estresaren kontua ezaguna da honezkero, askotan, gehiegitan, erabili dugulako hain hitz potoloa bestelako hutsuneak eta akatsak tapa-tzeko.

Eta halaxe bihurtu da Atxegalde, lekuko hutsala, mugimendu ororen lekuko hutsala. Santixabelen usaina iritsi iristen

da, ez, ordea, usain gozoena. Entsaioetako danbor soinuak, nazkatzeraino. Ez inorren erruagatik, neroni ere aritu bainaiz urte pare batean egurrari eman eta eman. Soka-dantzako entsaioak ere Atxegalden egiten dira, Agerialden, hain zuzen ere. Hauek ere ez dira herriko festetako alderdi samurrena, galdetu bestela dantzari kaskarren sasijauziak jasan behar dituen lurrari.

Sagardo Egunean botatzaileak Mahaspildegina bazkaltzen dute, hemen ere gure auzoak festaren zatitxo bat baino ez du bere egiten. Sagardo botilak irekitzen iztaraldea gorri-gorri eginda bazkaltzera eseri eta musua ere gorrituta altxatzen diren gazteak pasadan

baino ez baitute ikusten Atxegaldeko.

Eta Ikastola Egunean? Auzoan haurren negarrak eta autobusen joan-etorriak urte gutxian zehar jasan ondoren, etxeko txikiak prestaturiko dantza saio ederrak kiroldegia eskaintzen dizkiote. Hau da hau marka, halako plaza ederrak ez al du, ba, txikiak dantzari merezi?

Laster hasiko dira San Juanak, Santixabelak, Santioak, Sanestebanak... hemengo suziri eta musika doinuak garbi iritsiko dira gure auzora, bertakoak, ordea, aspaldi ez ditugu entzun. Berriz ere, Atxegalde lekuko hutsala izango da, inguruko mugimenduaren testigu ixila.

TXOKOALDE

Eukene Camino



Hiru lapurreta gau batean

Benetan sinesgaitza egiten omen zitzaion nire anaiari ikusten ari zena, edo hobeto esanda ikusten ari ez zena. "Non arraio ote dago nire autoa? Bart hementxe utzi nian eta orain falta, ez dek posible" omen zion berekiko.

Maiatzaren 27an, igandean, nire anaia Joxe Jabierrek Zumeta parean utzi omen zuen kotxea aparkatuta eta biharamunean, goizeko 5.45etan, lanera joateko prestatu zenean hara hor ezusteko ederra!

Auzo osoan honen bila ibili eta gero topatu ez zuenean Ertzaintzari deitu omen zion horren berri emateko. Goizeko 10.30etan Ertzaintzak etxera

deitu zuen kotxea Hernanin azaldu zela esanaz. Azaldu bai, baina nola? Ate bat zeharo okertuta, airbag-a matxuratuta eta bolantea blokeatuta, autoa arrankatu ezinik.

Gau hartan bertan hiru "Ford Escort" lapurtu zituzten. Lehen-dabizikoa Iru-nen ohostu eta Galardiko gasolindegian utzi zuten ma-txuratuta. Honen ondoren Txokoldera jaitsi eta anaiarena lapurtu zuten. Azkenik, hau ere aberiatuta

Hernanin utzi eta han hirugarren autoa zizatu zuten. Aste hartako egunkari batek zioenez, gertakari honetako bi gazetxo errudunak Usurbilen atxilotu omen zituzten, ez alferrik, noski!



KALEBERRI

Eneko Harreguy



Euskal ondare diren kirol hauek

Iritsi zait txanda. Ustekabean. Bi kontu ibili ditut buruan zer idatziko. Bata Kaleberriz kanpoko kontua; bestea Kaleberriko berria. Azken honi eutsi behar diot, aurrenekoa beste batean ere berdin konta nezakela ohartuta. Kaleberriko kontue-tan pilota izango dut mintzagai.

Herriarteko pilota txapelketa ikusi genuen ostiralean. Herriarrek galdu arren (ez galdu itxaropenik!) itxura polita eskaini zuten. Eta herriko gazteak Azkoitiakoak adina badirela ikusita poza ematen du. Frontoia lepo zegoen. Batzuentzat txiki geratu zen, eta laster Agi-

nagako frontoi berri eta handiagoan jokatu beharko dutela ere bota zuen baten batek. Asteburuan, berriz, pilotaren jaiari hasera eman zitzaion. Oso pilotazale naizen aldetik pena eman zidan jaia, bestelako eginkizunengatik, ezin osoki dastatu ahal izanak.

Izan ere, pilotaren molde batzuk besterik ez ditugu ezagutzen, eta euskal ondare diren kirol hauen berri eman zaigu egun hauetan. Aberatsa da eta pilotarekin ez da esku-huska bakarrik aritzen. Txoko honek bere mugak dituen ezin naiz banan-banan mota bakoitza azaltzen hasi, baina

meretziko luke ondo ezagutzea. Gainera, neurri batean herrigintza osatzen laguntzen duen kirol hauen eskulanak ere begiz dastatzeko moduan jarri zizkiguten; artisautza zela, eskulturak zirela...

Eta, era berean, jai honek herriko pilotari bultzadatxo bat ematen lagunduko du. Kalterik ez al dio egingo!! Eta Usurbilgo Pilota Elkarteak horrenbeste merezi du; ahaleginak egiten ditu, gazetxo dezente ikusten ditu, eta aurten ez bada Herriarteko Txapelketan aurrera gehiago egiten, hurrengo urtean izango da. Etorkizuna gazteez beterik dago eta!

AGINAGA

Oskar Santamaria



Frontoia eta Sanpraixkuak

Herriko frontoi berria noiz egin behar duten galdezka hasiak ginen dagoeneko. Proiektuaren berri eman zutenetik hilabete batzuk pasa dira, lurak erosteko hitzarmenen bat egina omen dute baina hala ere oraindik ez dira lanean hasi.

Auzoan, ordea, bazen beste kezka bat. Non egin behar dira Sanpraixku jaiak plaza inguruan frontoia egiten hasten badira? Hor dago kokka! Frontoia egitea nahi dugu, baina herriko festak egiteko leku egokia aurkitzea ez da erraza izaten.

Azken orduko berrien arabera, behintzat, Sanpraixkuak pasa eta gero hasiko dira erai-

kuntza lanean. Aurten libratu gara, baina datoren urtean? Frontoia eraita badago ondo, bestela irtenbideren bat eman beharko zaie herriko jaiak.

Bestalde, eta gaia erabat aldatuz, udara gainean dugula nabari da dagoeneko. Ikasleek laister hartuko dituzte oporrak eta poza eta alaitasuna iritsiko da Aginagako txokotara. Erriberan, berriz, piper



biltzen izango da lana. Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere piper mordoa izatea espero dute piper ekoizleek. Ea ba hauen itxaropenak egi bihurtzen diren.

ZUBIETA

Alex Udabe



Obrak, zer gauza arraroa!

Orain esan behar dudanak ez dut uste inor harrituko duenik. Orain ere Zubietan hasi dira obra berri batekin, noiz bukatuko duten ez dakit, baina, hasi, hasi dira behintzat. Etxetxo ondoko kurba zabalitzen hasi dira. Obra honen arrazoi nagusia, bidea estua izateaz gain, kurbatik kotxe bat zetorrenean ez zela ikusten izan da eta, ondorioz, istripu batzuk izan dira eta bai susto galantak ere.

Orain, arazo hau konponduko dute, baina nik beste arazo bat ikusten dut; kotxeen abiadura, hain zuzen ere. Denok dakigun bezala, Zubietan, bai Usurbilgo eta bai Lasarteko

jende ugari ibiltzen da; batzuk oinez, beste batzuk korrika... Honegatik, ondorio batera iristen naiz; autoetako gidariak abiadura kontrolatzen ez badute, istripuak gertatzeko aukera handiagotu egingo dela bai oinezkoekin eta bai autoekin. Beraz, badakigu denok zaindu beharreko gauza bat dela.

Udara heldu zaigu, eguraldi onak eta beroak etorri zaizkigu eta festak ere gainean ditugu. Esan beharra dago, Zubietako Jai Batzordeak hotzak eta euriak urte

osoan zehar ere harrapatzen dituela festak antolatzen. Denok oso gustura ibili eta gozatzeko aurretik lan ikaragarria egin behar izaten da eta normalki hau ez da gehiegi baloratzen.



Gipuzkoako garbitasun alorreko greba, duintasunaren aldeko 43 eguneko borroka

Isabel Dominguez eta Teodora Rubio usurbildarrek greba gogorra eta luzea jasan behar izan dute joan den apirilaren 23a eta ekainaren 4a artean, beste 1.000tik gora lagunekin batera, Gipuzkoako garbitasun alorreko langileen eskubideen alde aritu baitira borrokan. 43 egun gogor izan badira ere, azkenean lortu dute Garbitasun alorreko Patronalak bere eskaera zenbait aintzat hartzea. Orain, dagoeneko lanera bueltatu diren honetan, langileen eskubideen aldeko borroka ezezik, langile bezala merezi duten tratu duinaren aldeko borroka ere izan dela onartzen dute, "garbitzaileen lana inork gutxi errespetatzen baitu".



Isabel Dominguezek 12 bat urte daramatza garbitzaile lanetan eta Teodora Rubiok, berriz, 11 urte inguru. Bulegoak, dendak eta eskolak garbitzen dituzte, sektoreko beste langileen antzera, beharrezko baitute leku ezberdinetan lan egitea dezenteko soldata bat osatzeko. Joan den urtariletik garbitzaileen sektoreak negoziazioetan ziharduen Patronalarekin, azken 14 urteotan langile hauen lan baldintzak ez baitira ezer aldatu. Patronalaren jarrera kaskarra eta negoziazioen aurrerapen eza ikusita, apirilaren 23an greba mugagabea hastea erabaki zuten garbitasun alorreko langileek, ELA, LAB, CCOO, UGT eta ESK sindikatuak babestuta.

Hiru ziren langileen eskaera nagusiak, %6ko soldata igoera, lanorduen murriztea 35 ordu hiru urteko epean eta baja hartzean soldataren %85 ordaintzea. Azken hau zen eskaera nagusia, izan ere, garbitzaileen lana ez da samurra eta, ondorioz, maiz hartu behar izaten dituzte bajak. Teodorak azaldu zuenez, "zama handiekin ibili behar iza-

ten dugu, bateko fregonak eta besteko poltsak direla eta. Honegatik, askotan bizkarreko arazoak izaten ditugu, lana ez baita samurra".

Patronalaren jarrera agintzailea

Langileek eskaerok ozen eskatzen bazituzten ere, Garbitasun Patronalak jarrera oso agintzailea izan du hilabetea aise gaingitu duen gatazkan. Isabelen hitzetan, "sindikatuak behin eta berriz eskaintzak egin arren, ez dugu inolako erantzunik jaso Patronalaren aldetik". Herritarren jarrera ere ez dute beti aldeko izan. Egunero-egunero protestak eta manifestazioak egin dituzte langileek eta Donostiako kaleak papelez jostea izan da euren aldarrikatzeko moduetako bat. Askok ez du ulertu jarrerak hau eta kritikak ere entzun behar izan dituzte.

Eusko Jaurlaritza izan da gatazka honetan guztian paper ga-rrantzitsua jokatu duen beste erakundea. Sindikatuak errezeloz ikusi dute Lakuako erakundearen jarrera, hasieratik Patronalarekin

hitzartze antzeko bat balu bezala jokatu duela salatu baitute behin eta berriz. "Gure greba eskubidea behin eta berriz zapaldua izan da, gure ordezkari batzuk jarri baitituzte lanean. Gainera, Jaurlaritzak proposatzen zituen zerbitzu minimoak ere gehiegizkoak ziren, lotsagarriak. Honegatik ez gara batere fidatu Eusko Jaurlaritzarekin eta bera gatazkan sartu aurretik, nahia go izan dugu Precok egitea bitartekaritza lana".

Izan ere, joan den ekainaren 4an Precok delako honen eskutik etorri zen grebaren konponketa. Greba ugaritan bitartekaritza lana egiten duen erakunde honek eman zion amaiera garbitzaileen grebari, sindikatu eta Patronalarekin bildu eta Precok proposaturiko neurriak onartu behar izan baitzituzten bi aldeek. Azkenean, %5,15eko soldata igoera, 35 orduak lau urteko epean eta lehenengo bajaran soldataren %75 eta aurrerakoetan %70 lortu dituzte.

Gustura egoteko moduko lorpena dela esan dute sindikatu-etako ordezkari gehienek, ESK sindikatua des-

dos agertu bada ere. Langileak ere pozik daude, garaile sentitzen dira. Isabelek eta Teodorak esan zutenez, "aurrerantzean Patronalak oso argi izan dezala gure esku-bideen alde borrokatzeko prest gaudela, ez garela bel-durtuko, ez garbitzaileak izateagatik ezta gehienak emakumeak izateagatik ere". Azkenean, beraz, guztiaren gaineratik duintasunaren garaipena izan da nagusi, langile orok eta pertsona orok merezi duen errespetuaren garaipena.

Gatazkaren bestaldean egon direnak

Gatazka luzea eta gogorra izan da bai langileentzat, bai Gipuzkoako hainbat udaletxe, eskola, kiroldegi eta beste-lakoentzat ere. Izan ere, 43 egun garbitasun zerbitzurik gabe egotea ez da marka makala. Greba hasieratik ugariak izan dira ateak itxi behar izan dituztenak, Arrasateko bi kiroldegiak, Eibarko udal igerilekua eta Zarauzko haurtzaindegia kasu.

Baikarak, Gipuzkoako Guraso Elkarteen Federazioak, lan garrantzitsua egin du eta behin eta berriz aldarrikatu du Udaletxe eta Hezkuntza

Sailaren aurrean "gure seme-alabak hezkuntza duina jasotzeko duten eskubidea". Izan ere, alergia eta asma arazoak direla medio hainbat haur eskolik gabe izan da grebak iraun artean. Teodora eta Isabelek ondorioztatu dutenez, "faltatu arte inor ez da konturatu gure lanaren garrantziaz". Azaldu zutenez gurasoak oso pozik agertu ziren berriz ere lanean ikusi zituztenean. Hala ere, guztia ez da txarra izan, "behin aurrezki kutxa batean sartu ginen protesta modura eta lurrera paperak bota genituen, bertan gure lana ordezkatzeko ari baitziren. Joaterakoan barkamena eskatu genien bertakoei, sorturiko enbarazua zela eta. Hark lasai egoteko, ondo egiten gurela erantzun zigun".

Gure herrian Gipuzkoa mailako greba mugagabeak ez du inolako eraginik izan. Izan ere, Udalak ez du azpikontratatzeko garbitasun zerbitzua. Udaletxeko garbitzaileak bertako langileak dira, funtzionariak, eta gainontzeko udal langileen lan baldintzak dituzte. Honegatik bertako garbitasun langileek ez dute parte hartu alpatu greban, euren egoera oso bestelakoa baita.

Amagoia Mujika

Guztiak aho-zabalik uzteko moduko jarrera eta indarra

Garbitzaileen borroka gertutik bizi izan dugunak aho-zabalik utzi gaitu langile hauen jarrerak. Eguna joan eta eguna etorri inork ez zuen konponbidea gertu ikusten, ez sindikatuek, ez langileek ezta grebak zuzenean eragin dituen eskola, udaletxe, kiroldegi eta besteko arduradunek ere. Hala ere, txaloga-rria izan da Gipuzkoako 1.000tik gora langilek azaldutako indarra, ederki baitzekin beren borroka zilezkoa zela. Teodora eta Isabel ere egunero-egunero aritu dira manifestazioetan, Artzai Onaren Katedraleko itxialdian, protesta guztietan... Azaldu zutenez, langileen arteko batasunak eta indarrak oso lagungarri izan dituzte 43 eguneko borroka luzean. "Ezagutzen dut senar-emazteak greban izan diren kasurik eta harrigarria dela deritzot, horrek egunero gure eskubideen alde borrokatzeko indar handia ematen zigun", dio Isabelek. Teodorak, berriz, oso ondo pasatu duela aitortzen du, "Manifestazioak, abestiak, oihuak... guztiak baliagarriak ziren adrenalina askatzeko, tentsio handiko momentuetan oso lagungarri izan da. Oraindik abesten genituenak burutik ezin kendu nabil". Ertzaintzarekin ere izan zuten ika-mikarik eta grebalari bat atxilotua izan zen joan den ekainaren 7an izandako istiluetan. Zentzu honetan Ertzaintzak langileak oso gogor hartu zituela salatu dute guztiek aho batez. Orain berriz lanera buelta, normaltasunera, egunerokora. Hori bai, beren eskubideak gehiago errespetatzen direnaren ziurtasunaz dena errazagoa da.



“Askatasuna plaza” inauguratu dute

Pasa den ekainaren 10-ean inauguratu zen Paris etxe atzeko parkea. “Askatasun plaza” izenez ezaguna izango da hemendik aurrera, egun horretan bertan izen hori agertzen zen plaka jarri baitzuten plaza erdi-erdian.

Bertako bolatokian, berriz, lehenengo txapelketa jokatu zen. Jende askok parte hartu zuen eta irabazleen parera iritsi nahi duen norbait baldin bada hemendik aurrera entrenatzeko aukera faltarik ez du izango. Aitzaga elkarrean egongo da bola, baita birlak ere. Aitzaga tabernan

eskatu beharko dira hauek hartzeko giltzak.

Bestalde, hasiera batean asteazkenetako merkatua “Askatasun plaza”n dagoen estalitako eraikuntzara eramana nahi bazuten ere, udaleko ordezkariak merkatu hau egitea komenigarria den edo ez aztertzekotan dira. *“Osasun baldintzak betetzeko orduan arazo haundiak izan ditugu askotan eta plaza berri batean merkatu hori jartzea ez zaigu egokia iruditzen. Gainera, herriko komertzioen aldetik ere merkatuaren inguruan hainbat kexa jaso izan ditugu”*



Usurbilgo Haur Eskola martxan jarri nahian

Usurbilgo Haur Eskola Ibanher Kooperatibaren esku gelditu zen pasa den ekainaren 12an egin zen udalbatzan. Proposamen bakarra aurkeztu zen lehiaketara, baina adjudikazioa behin betirako izan dadin zenbait baldintzetara egokitu beharko dute. Hala ere, bien bitartean umeak haur eskola honetara eraman nahi dituztenek izena emateko epea zabalik dute.

Datorren ikasturtearekin batera, Kalezarren lehen eskola txikia zenaren eraikuntzan, iraila hasieran hasi eta uztaileko azken egunera arte zabalik egongo da, izan ere, egun

bereziak kenduta, abuztuaren itxita egongo baita. Beraz, astelehenetik ostiralera goizeko 7.30etara ireki eta arratsaldeko 19.00ak arte egongo da zabalik haur eskola.

Haur Eskola honek Haur Hezikuntzako lehen zikloa beteko du, hau da, 0-3 urte bitarteko haurrei egongo da bideratua. Izena emateko epea, berriz, ekainaren 18tik 29ra izango da. Goizean 10.00etatik 12.00etara udal liburutegian eta arratsaldean 18.00etatik 20.00etara udal idazkaritzan. Bertan gurasoek izan ditzaketen galderei erantzun zaien eta informazio zabalagoa ere eskainiko da.

Bestalde, zerbitzu hau publikoa izango denez eta Haur Eskola honi herritarren elkarrekin bultzatzea gustatuko litzaiokeenez, datozen hilabeteetan irekiko den Haur Eskolaren izena aukeratzeko deialdia egiten dizute. Beraz, animatu eta Noaia! Kultur Elkartera bidali ditzakezue proposamenak.

Azkenik, eta herritarrei leku bat egin asmoz, sukaldaria behar da lan erdiz aritzeko. Beraz, interesa duen edonork eta haurrekin egotea gustoko duen oro, agertu dadila lehen aipatutako leku eta ordue-tara.

ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL

MAHUKA
Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia
hemen aurkituko duzu
Udaberriko moda berria zuretzat!
Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

P A T R I
J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak
Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

Zubietako Aliri zubia Txikierdi aldetik zabaltzeko eskaera



Zubietako "Errekondo egur zerra" lantegiak kamioi haundiak eta trailerrak zailtasun haundirik gabe pasa ahal izateko Aliriko zubia egokitzeko eskaera egin zuen. Bertan, zubiaren harri zaharrak ukitu gabe, Txikierdi aldetik dagoen hormigoizko baranda zabaldu eta hau zabaltzen den heinean bidea ere zabaltzea proposatu zuten. Eskaera honi baiezkota eman

Ohorezko alkatetzarik gabe gelditu da franco

Pasa den ekainaren 12an egin zen ezohiko udalbatzan Usurbilgo udalak 1949ko abuztuaren 22an Francisco Franco Bahamonde Usurbilgo Ohorezko alkate izendatu zuteneko erabakia atzera botatzea erabaki zuen Euskal Herritarro-keko zinegotziek aurkeztu zuten mozioa onartu ondoren. Erabaki horrekin batera, Franco usurbilen pertsona ez atsegina izendatu eta herrian berarekin zerikusirik duen edozein ikur edo plaka kentzea ere onartu zen.

aurretik udalak Zubietako Herri Batzarraren iritzia jakin nahi izan du eta hauek proposamena interesgarria eta komenigarria dela jakinarazi dute. Horrekin batera, proiektu berean, Txikierdirainoko bidea hobetzea bidezkoa izango litzatekeela diote. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere zabaltze lan horiek egiteko ez du inolako eragozpenik jarri.

Artzabaleko babes ofizialeko etxebitzak

Artzabal inguruan etxebizitzak egiten hasi ahal izateko etxebizitzaren proiektua onartzea falta bada ere, ekainaren 12an egin zen ezohiko udalbatzan herritarrek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izateko baldintza-pleguak onartu zituen udalak. Bertan mota honetako 52 etxebizitza egingo dituzte eta etxebizitza proiektua onartu bezain laister irekiko dute babes ofizialeko etxebizitza hauek eskuratu ahal izateko izen emateko epea.

Motzean

Kultura eta euskara lanposturako lehiaketa

EAJ-PNVko zinegotziek kultura eta hizkuntza-normalizatzaile lanposturako lehiaketa bertan behera utzi eta prozesua berriz hasiera-hasieratik hasteko eskaera egin dute udalean. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2001-04-11) udalak lanpostu honetarako deia egin ondoren lehiaketa honetara aurkeztu behar zuen batek errekurtsio bat jarri zuen udalak jarritako lehiaketa-baldintzen aurka. Errekurtsio honen arabera baldintzetako bi atalek lege-prozedura ez zuten betetzen. Honen aurrean, dekretuz, eta beste zinegotziei iritzirik eskatu gabe, alkateak GAOn azaldutako iragarkiari aldaketa batzuk egin izana salatu dute EAJ-PNVko zinegotziek.

Guzti hau ikusita Usurbilgo EAJ-PNVk zera dio:

- Alkateak, dekretuz, zuzenketari hori egin arren, legea bete-betean ez duela betetzen.
- Iragarki-epeak eta baldintzak ez direla zuzen bete: legearen arabera, GAOn bitartez egin behar da azken iragarkia eta honekin amaitu iragarpen-epea. Udalak egindakoaren arabera alderantziz gertatuko dela.
- Legearen arabera, izen-ematearen epea zehatza eta ofiziala dela kontuan hartuta, epea ireki aurretik izen-emandakoak zerrendan azaltzen direla.

Kale Nagusia USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15

LABE-GOXO
Ostialegia - Ondolegia

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

**EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL**

TEL: 943 37 03 44

Xinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

**Aritzeta 1 behe,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87**

Zumarte Musika Eskolako kontzertu ugari ikasturtea bukatzeko

Aurtengo ikasturtearen bukaera iritsi denez kontzertu eta ekitaldi ezberdinen errepaso txiki bat egin nahi genuke. Santa Zeziliaren omenez egindako kontzertuarekin eman genion hasiera ikasturtari, ondoren Kataluniara egindako bidaiari iritsi zen, Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleekin ere elkartrukaketa egin genuen, eta ondoren ere kontzertu dexente eman ditugu.

Hala ere, urtean zehar alde batera eta bestera ibili ondoren, ekainean beste ekitaldi batzuk antolatuz eman behar diogu bukaera ikasturtari. Ekitaldi nagusia ekainaren 16an gaueko 22.15etan Oiardo kiroldegian eskainiko duguna izango da. Bertan, Zumarteko kitarra taldeak, gazte taldeak, orkestrak, eskusoinu taldeak, usurbilgo eta Zumarteko txis-



tulari taldeak eta Zumarte txiki eta Zumarte abesbatzak parte hartuko dute.

Ondoren, ekainaren 19, 20 eta 21ean musika eskolako ikasle guztiek Zumarteko ganbaran kontzertuak eskainiko dituzte. Txiki-txikiak ere bertan izango dira aurten ikasi dutena erakusteko asmoz. Ekainaren 19an, asteartea,

arratsaldeko 19.00etan txistu, klarineta, zeharkako txirula eta eskusoinua jotzen duten ikasleek txanda izango da. Asteazkenean, ekainaren 20an, bibolina, alboka eta pianoko ikasleek beren kontzertua eskainiko dute 18.00etatik aurrera eta ostegunean, hilak 21ean, perkusioa, saxofoia eta kitarra ikasten duten ikasleek parte hartuko dute arratsaldeko 19.00etan hasiko den kontzertuan.

Beraz, herriko musiko gazte-foenak egiten duten lana ikusi nahi baduzue, baduzue non aukeratua. Ekainaren 16an Oiardo kiroldegian izango den ekitaldira eta ekainaren 19, 20 eta 21ean Zumarteko ganbaran eskainiko diren kontzertuetara gonbidatuta zaudete.

Zumarte Musika Eskola



Zendoia enea
Taberna

- ✓ Pintxoak
- ✓ Eguneko menuak
- ✓ Bokatak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Razioak, .

Kale Nagusia, 35 Telf; 943 36 25 60

LATAILLADE

ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

Michelin lantegia ingurugiroa zaindu nahian

Michelinek Usurbilen duen lantegiak egungo ingurugiro arautegia betetzen duela ziurtatzen duen ISO 14.001 kalitate araua jasoko du datozen egunetan. Horretarako, kutsadura gutxitu eta ingurugiroa ahalik eta gehien errespetatzeko ekintzak bideratzen hasi ziren duela urtebete inguru.

Ekintza horiek lau oinarri nagusi zituzten: kutsadura sortzen zuten modu ezberdinak aurrikustea, egungo ingurugiro eskakizunak betetzea, urteroko ingurugiro plan bat jartzea eta plan hauek bai lantegi barruan eta bai kanpora begira jakinaraztea.

Industri hondakinak gutxitu eta hauen gaineko kontrola haundiagotu ahal izateko produkzio prozesuan zenbait aldaketa egin behar izan dituzte. Luis Miguel Ruiz lantegiko zuzendariaren esanetan energia berriztagarria sortzeko saldu egiten dute hondakinen zati haundi bat. "Azken finean hondakin horietatik %7a bakarrik eramaten da isurtegi kontrolatuetara. Horrez gain, zaborra gaika jasotzeko prozesu bati ekin genion eta fuel-oil delakoa erabili beharrean gas naturala eta elektrizitatea erabiltzen dugu energia modura".



Liburuak, koadernoak eta boligrafoak alde batera utzi eta festa giroa izan zuten nagusi ekainaren 3an Udarregi ikastolako irakasle, ikasle eta hauen gurasoek. Goizeko 9.00etan hasita ikasleek hainbat jokotan parte hartzeko aukera izan zuten, ikastolako plazan batzuk eta Oiardo kiroldegian besteak. Horrez gain, leku berean "Garrarioak" emanaldia eskaini zuten Haur hezkuntzako ikasleek. Azkenik, herriko frontoian egin zuten bazkariarekin eman zioten egunari amaiera.



Etxeen izenekin keramikazko plakak egiten hasia da Bustinzulo keramika taldea. Kaleberriko etxeekin hasi dira lehendabizi, baina dirudienez kaxko aldean ekimen honek ez du arrakasta haundiegirik izan. Kaleberriko etxearen jatorrizko izenarekin plaka hau jarri nahi dutenek oraindik badute aukera. Udalera deitu eta bertan ematen dituzte egitasmo honi buruzko argibideak. Besteak, berriz, lasai egon, zuen txanda ere iritsiko da eta.



Igandetan ganba-ziri mundialak!



kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

Joseba Zubeldia bigarren Larrabetzuko “Jesus Loroño” sarian

Denboraldi hasieran aurreneko postuetan azaldu ez bada ere, azken aste hauetako laisterketetan ondo ibili da Joseba Zubeldia txirrindulari usurbildarra. Nafarroako biran 20 onenen artean sailkatu ondoren ekainaren 8an jokatu zen “Jesus Loroño” sarian bigarren postua eskuratu zuen.

Olarra-Ercoreka afizionatu mailako talderik indartsuene-tako batean egonda, taldeko beste txirrindulari batzuentzat lanean ibili da orain arteko laisterketetan. Denboraldiari lasai ekingo ziola erabaki zuen taldeko zuzendariak, baina hilabeteak aurrera joan diren heinean Joseba Zubeldia denboraldiko sasoi puntu onenera iristen ari da. Ekainaren hasieran jokatu zen Nafarroako biran onenen artean ibili zen



usurbildarra, eta ondorengo laisterketetan ere maila bikaina erakutsi du.

Pasa den ekainaren 8an Larrabetzun izan zen “Jesus Loroño” sarian bigarren postua eskuratu zuen. Baque taldeko Ruben Lobatorekin batera iritsi zen helmugara eta honek

azken metroetan gainditu zuen Joseba. Ekainaren 10ean, berriz, Ataunen izandako laisterketan 6. postuan gelditu zen. Gero irabazlea izan zen txirrindulariaren taldetxoan zihoan, baina gorpila zulatu eta erorikoa izan ondoren ez zuen garaipena lortzeko aukerarik izan.

UGA areto futbol txapelketa

Datorren ekainaren 15ean Usurbilgo Gazte Asanbladak antolatutako areto futbol txapelketako final laurdenak jokatuko dira herriko frontoian.

14 urtetik gorakoak jokatzen ari diren txapelketak hauetxek izango dira final laurdenetako lau partiduak:


Makalak - Alperro

Txiriboga - Txikilino

Irrati - Txurrut

Judo team - Aston Pilla

Final erdiak ekainaren 22 edo 23an izango dira eta txapelketako azken partiduak, berriz, uztailaren 1ean.



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

Pelota molde ezberdinak ikusteko aukera izan zen I. Pelota festan

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, pelota izan zen nagusi ekainaren 9 eta 10ean Usurbilgo frontoian egin zen pelota festan. Herriko frontoian oso ohikoak ez diren pelota moldeak ikusteko aukera izateaz gain, pelotarekin zerikusi zuzena duten bi erakusketak (eskulturak eta liburuak) ikusi ahal izan ziren frontoi ondoko bi lokaletan.

Ekainaren 9an herriko haurrek Alustiza, Asier Olaizola, Taberna eta Koka pelotari ezagunekin pelotan aritzeko aukera izan zuten goiz partean. Arratsaldean pasaka, zesta punta eta xare partidak izan ziren eta gauean, berriz, joko garbi eta eskuzko pelota partidak ikusteko aukera izan zuten herriko frontoira gerturatu ziren guztiek.

Hurrengo egunean, berriz, ezohiko pelota partida jokatu zen. Unai Loidi eta Paulino Ibargoienek 22-18 irabazi zien Legarreta eta Mendizabal bertsolariek osatutako bikoteari. Tartean, ordea, ez zen bertso faltarik izan. Lehenengoek Ibai Esoain bertsolaria izan zuten botilero eta Irazu bestee. Epaile lanetan, berriz, Xabier Sukia aritu zen.



Usurbilek 1-2 galdu Azkoitiaren kontra

Gipuzkoako Herri Arteko Pelota txapelketako final laurdenetan herriko pelotariak lan txukuna egin zuten Azkoitiarren kontra jokaturako joaneko partidetan. 1-2 galdu zuten, baina ezustekoa emanek Azkoitiara bi garaipenekin joateko ez zen asko falta izan. Kadete mailan, Jon Irazustabarrena eta Ibai Orena garaipenetik gertu gelditu ziren. Partida osoan markagailuan atzetik joan ondoren 21-21 berdintzea lortu zuten, baina azkenean ezin izan zuten garaipenik lortu. Asier Portu eta Asier Arrutik lortu zuten hiru partidetakoa garaipen bakarra, herriko pelotari gazte hauek 22-17 irabazi baitzuten beren partida. Azkenik, Jabier Sancho eta Xabier Errastik ezin izan zuten ezer egin Larramendi-Zapiain azkoitiar bikotearen aurka eta 22-10 galdu zuten.

Itzuliko partidak ekainaren 15ean izango dira Azkoitiako frontoian. Usurbildarrek finalerdietan sartzeko aukera badute, 2-1ekoa gairatuz gero 8 tantoko desbantaila besterik ez baitute. Ea ba ezustekoa eman eta garaipenarekin itzultzen diren Usurbila.

Denak irabazle haurren pelota txapelketan



Pelotari gazteak indarrez datoz. Ekainaren 3an jokatu ziren inguruko herrietako gaztetxoek parte hartu duten Usurbilgo pelota txapelketako azken partiduetan eta etorkizun haundia pelotariak ikusi ahal izan ziren bertan. Bi bikote usurbildarrei dagokionez, batek irabazi egin zuen, besteak, berriz, galdu.

Emailtzak:

Benjaminak B maila

Arruti- Untzalu-Perez (Andoain) 5
Esnaola-Altuna-Lazkano (Hernani) 1

Benjaminak A maila

Gaztañaga-Aizpurua- Jauregi (Andoain) 6
Ituarte-Artetxe-Ortega (Lasarte) 3

Alebinak B maila

Gabilondo-Fagoaga (Urnieta) 10
Furundarena-Arrilaga (Usurbil) 18

Alebinak a maila

Esquero-Narbarte (Goizueta) 18
aurka
Irazorza-Zinkunegi (Usurbil) 2


Infantilak

Esnaola-Egia (Andoain) 18
aurka
Larrañaga-Uzkudun (Azpeitia) 16

Aurtengo Emaile Egunak donazioen beharraz ohartaraztea izan du helburu

Ekainaren 6an Organu Emailearen Eguna ospatzeko informazio mahaiak jarri zituen Alcer elkarteak Gipuzkoako hainbat herritan. Azken urteotan donazio kopuruak gora egin duen arren, oraindik badira bizi-irauteko beharrezko duten organoa jasotzen ez dutelako hiltzen diren gaixoak. Hori dela eta, emaile kopurua handitzearen beharraz ohartaraztea izan du helburu aurtengo Emaile Egunak.

Arantxa Lazkanok, Gipuzkoako Alcer Giltzurrun Gaixoen Elkartearen kideak adierazi zigunez, aste osoan zehar giltzurrun gaixoen egoerari buruzko informazioa emateaz gain, emaile berriak lortzen saiatzea izan da aurtengo helburua. Izan ere, azken urteotan organo emaile euskaldunen kopuruak gora egin duen arren, oraindik ere badaude organoa jasotzen ez duten gaixoak edota organoa jasotzeko denbora luzea itxaron behar dutenak ere. Iaz Gipuzkoan 48.000 organo emaile egon ziren. Aurreko urteetako



datuekin alderatuz, kopuru handia da. 1990. urtean, esaterako, 25.000 organo emaile egon ziren eta 1980. urtean, aldiz, 477 baino ez. Gaixoei dagokionez iaz giltzurrun gaixoak 1.600 izan ziren, gibelako gaixoak 350, bihotzeko gaixoak 160 eta birrikakoak 25.

Hala ere, badago datu ezkorrik ere. Iaz Euskal Autonomi Erkidegoan familiartekoei ezezkia eman zuten kasuen %13an, batzaz beste, 1999an baino lau puntu gehiago.

Azken finean, estatu mailako media baino haundiagoa hurrunez hurrun. Arantxa Lazkanoren arabera, "datu honek erakusten du gizartea gai honetaz ohartarazteko eta sentsibilizatzeko lanarekin jarraitu beharra dagoela".

Usurbilen ere baditugu giltzurruna aldatu dieten herritarrak. Iazko abenduaren 31 arte, 2 gizon izan dira transplantatuak eta emakume bat egon da dialisia egiten.

Agurtzane Solaberrieta



Jesus Mari Tapia

Giltzurruna transplantatua duen herritarra

Nola konturatu zinen giltzurrun berria behar zenuela?

Jaten nuen guztia bota egin nuen, pixarik ere ez nuen egiten edo bestela zailtasun ugari nituen. Denbora dextente egin nuen horrela, izan ere, berandu konturatu baini-tzen nere giltzurrunak ez zidala ondo erantzuten.

horiek izan ziren lehen sintomak.

Zenbat denbora egon zinen giltzurrun berriaren zai?

Zortea izan nuela aitortu behar dut. Izan ere, 11 hilabete baino ez bainituen itxaron. Badaude denbora luzea itxaron behar duten gaixoak, askotan urte dextente pasatzen dira. Gainera, edozein giltzurrun ez dizu balio. Adibidez, nere aurretik beste pertsona bat zegoen, baina harentzat egokia ez zenez, neri jarri zidaten.

Zer da gogorrena giltzurrun gaixo batentzat?

Dialesia. Makina baten sartzen zaituzte odola garbitzeko eta bertan bi ordu t'erdi egoten zara. Odola sartu eta atera ibiltzen da. Behin dialesia amaituta, pertsona berriz jaiotzen da.

Ze mezu zabalduko nahiko zenuke?

Norberari gertatu arte ez zara donazioaren beharraz jabetzen. Niri bizia eman didate eta hori nere bizi-tza osoan eskertuko dudana izango da. Jendea animatu nahiko nuke, askok eta askok bizi-irauteko besteen organoak ezinbesteko dituelako.

Norberak irabazitako dirua poltsikoan edukitzeko aukera dagoenean...

Udararen etorrerarekin ikasleak oporretan pentsatzen hasiak dira dagoeneko. Festarik festa ibili nahiko dute batzuk, hiru hila-bete ezer egin gabe pasako dute besteek, baina badira udaran lan egin eta diru pixka bat irabazi nahi izaten duten gazteak ere. Beraientzat diru sarrera hori eguneroko ogia izaten ez bada ere, gurasoei karterak hustu nahi ez eta beraiek irabazitako txanponak poltsikoan edukitzeko lan egi-tenak dira horiek.

Lana aurkitzea, ordea, ez da erraza izaten. Herriko soroetan piper biltzen ibilitako ikasleak asko dira, baina azken urtee-tan "lanbide" honek behera-kada nabarmena izan du. Diru pixka bat ateratzeko piper asko bildu behar izaten direla entzun izan dugu askotan eta horregatik herriko ikasleak beste lanbideren baten bila hasiak dira dagoeneko.

Horixe da aurten Udarregi ikastolan Derrigorrezko Biga-rren Hezkuntzako azken ikas-turtea bukatuko duten zenbait ikasleren kasua. Gazteak dira oraindik, 16 urte besterik ez di-tuzte, baina udara osoan ezer egin gabe egoteko aukera badute ere, lan pixka bat egi-tea da beren asmoa. Iaz pipe-rak biltzen ibili ziren, baina aurten "lanbidez" aldatu nahi dutela argi dute. "Piperrak bil-tzen dirua ateratzeko lan asko egin behar da. Gutxi ordain-tzen dute eta iazko experien-tzia ikusita beste edozertan lan egitea nahiago dugu".

Hala ere, guztientzat lana aurkitzea erraza ez dela izan-go badakite. Koadrila bereko zazpi neska hasi dira lan bila eta beraiek egin ditzaketen la-nak asko ez direla ere garbi du-

te. "Umeak zaintzea izan liteke aukeretako bat. Badakigu gazte-ak garela, eta horrek ez digu laguntzen, ba-ina beste aldetik ume-ak gurekin hobeto pa-sa dezaketela ere pen-tsatzen dugu. Beste-la, haurrei klaseak ematea ere gustatu-ko litzazuke, taber-nan lanean hasteko gazteegiak garela pentsatzen baitugu".

Udaran poltsikoan diru pixka bat eduki-tzeko hasi nahi dute lanean. "Gurasoek "paga" ematen digute, baina ez da nahikoa. Festetan gastuek goruntz egi-ten dute eta gastu horiei aurre egiteko lana egitea da irtenbide bakarra". Gurasoek lanean hasteko gazteegiak direla esa-ten die batzuei, besteek, berriz, udaran lan egitea ondo etorri-ko zaiela aholkatzen die. Hala ere, gauza bat argi dute: udara osoa ez dute lanean pasa nahi. "Ziortzako kanpaldi-ra joan nahi dugu eta lana egin ere bai, hor dago koxka".

Unibertsitateko ikasleak ere lanean

Beste ikasle batzuk, ordea, udarako lana zehaztuta dute dagoeneko. Hori da Eli Bruño eta Arantxa Udaberen kasua. Biak unibertsitate ikas-ketak egiten ari dira eta udara osoa lanean pasatzeko asmo-rik ez badute ere, begirale lanak egingo dituzte hama-bost egunez udaleku batetan. "Festak udaran izaten dira, eta batera edo bestera joan



nahi izanez gero dirua behar da. Horrez gain, udara ezer egin gabe pasatzea asperga-rria da, parranda eta lo beste-rik ez baita egiten, eta modu honetan zerbait eginez diru pixka bat irabazi dezakezu".

Iaz ere begirale lanak egin zituen Elik eta Arantxa, berriz, Kutxarkin motxilero modura egon zen Donostian eta Zubie-tako hipodromoan ere lan egin zuen. Baina lan hauek eginez irabazitako soldata diru premia haundirik gabe udara pasatzeko nahikoa iza-ten al da? "Irabazitako diru horrekin udara pasatzen duzu, baina gerorako ez da dirurik gelditzen. Urteak aurrera doa-zen heinean diru gehiago gas-tatzen da udaran, eta festarik festa ibiltzen bazara oraindik gehiago. Edozertarako dela ere udarako diru sarrera hori ondo etortzen da beti".

Josu Aranberri

Ezagutu mundua EGUNKARIArekin!




Ekainaren

17tik

aurrera erosi
EGUNKARIA,
eta irabazi

24 bidaiatarako
txartela



Jaso DOAN
elastiko
dotore hau
eta ZATOZ
GUREKIN!!



Babeslea:



MUNDUA ŪLERTZEKŌ



Egunkaria

Lehiaketa



Udal fototeka

**Zein leku da argazkian
ikus daitekeena eta
noizkoa da?**

Lekua asmatu eta urtea
asmatzen ditztenen artean
Tragoxka tabernan bi
pertsonentzat afaria
zozketatuko dugu



Egilea: Dominguez

Ezkerretik eskuinera: goian Jesus mari Errekondo, Felix Aizpurua, Antonio Maria Tolaretxipi, Kotxe Marie Yustede, Michel Gorajuria, Borja J. Claude, Ramon Iparragirre eta Agustin Illarramendi. Behean Kotxe marie Zubizarreta, Heuty Jean Francois, Jexux Iparragirre eta Joxe Iparragirre.

Irabazlea

**Antonio Maria
Tolaretxipi**

Saria

Antxeta Tabernan bi
lagunentzat afaria

TXURRUT

TABERNA

Giro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa



Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

EKAINAK 16 larunbata

- **Kray taldearen kontzertua** Txurru tabernan gaueko 22.30etan.

EKAINAK 18 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

EKAINAK 19 asteartea

- **Batasuna batzarra: balorazioa eta karguen hautaketa.** Udarregi zaharrean 19.30etan.

EKAINAK 23 larunbata

- **Santixabel jailetako judo txapelketa** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 16.00etan hasita.

EKAINAK 25 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan.

EKAINAK 26 asteartea

Santixabel jaien egitarauaren barruan **Xiberoko abeslariak eta Artze anaiak "Lüralde Zillarra" emanaldia** eskainiko dute Udarregi ikastolan gaueko 22.00etatik aurrera.

EKAINAK 27 asteartea

- **Santixabeletako maskotaren igoera eta Tirri-Tarraren "RE+FA" emanaldia** frontoian arratsaldeko 19.00etatik aurrera.

OHARRAK

- ✎ Bi pertsona behar dira Etxealdiako pisu bat alokatzeko edo alokairuko beste pisu bat neska bat sartzeko. Interesatuak deitu 943 36 02 17 edo 669933626 telefonoetara. (Erkuden eta Jaione)
- ✎ Neska eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak 943 36 43 11 telefonora dei dezakezue.
- ✎ Mahaspildegia elkartean bazkide postua salduko nuke. Telf. 943 365231.
- ✎ Chow chow arrazako txakurrak salgai. Pedigriarekin. Harremanetarako deitu 943 362072 telefonora.
- ✎ Banaketarako furgoneta isoterma bat aukeran. Lanerako aukerarekin ere saltzen da. Telf. 606060322.
- ✎ Belar bolak egiteko belarra eskaintzen da garbitze aldera Kalezarren. Interesatuak deitu 6306 47119 telefonora (Iñaki).

- ✎ Urrezko pultsera bat galdu nuen herrian pasa den maiatzaren 16an. Aurkitu duenak deitu 943 36 38 22 telefonora.

- ✎ Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu eguerdietan 656719442 telefonora.

- ✎ Munalurran garaje bateko marra saltzen da. Deitu 943 362424 telefonora.

- ✎ Txinparta sagardotegian jendea behar da, ahal bada esperientzia duena, barran edo jangelan lan egiteko. Kurrikulumak Txinpartan utzi.

- ✎ Gitarra española bat dut salgai. Admira Juanita marka. Ehun bikoitzekoa eta forratu-riko forro beltzarekin. Ia erabili gabea, oso egoera onean dagoena. Prezioa: 16.000 pezeta. Telf. 678 375 390.

- ✎ Neska bat eskaintzen da udaran haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 361115 telefonora.

- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.

- ✎ Etxe bat alokatzen dut. Interesatuak deitu 943 365617 telefonora.




Orbea Ceus Replica mountain bike-a daukat salgai. 2 urte. Interesatuak deitu 678978331 telefonora (Gari)

Nafarroa Oinez

Aurtengo Nafarroa Oinez Lodosako eta Sartagudako ikastolen alde denez, herrian talde laguntzaile bat eratu da laguntza izan dezaten. Ikastola berria eraikitzeko 200 milioiko gastuetan murgildu direnez, laguntza ezinbestekoa dute. hau dela eta, materiala salgai jarri da: pikiloko piper potea 600 pezetan eta zainzuri lata 950 pezetan. Edonork erosi nahi izanez gero, Aitzagan eman dezake izena eta gero harremanetan jarriko gara

Nafarroa Oinez 01ko talde laguntzailea

Adi noauakide! 2000ko Noaua! guztiak koadernatzeko epea bukatzen ari baita




 Hartu 2000. urteko Noaua! hamaboskariaren ale guztiak (81-103) eta ale honekin batera banatu dugun aurkibidea eta joan zaitez Noaua! Kultur Elkartaren egoitzara, Laurok-era edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 2000. urteko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko agindu.

 Noaua! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea, berdin, besteok bezala.

 Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta. Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.

Joxe Luis Arrastoak erabazi du Noaua!ko pelota festako zozketa berezia



Pelota festa zela eta, azken alean Noaua! eta Forumen arteko elkarlanaren bitartez zozketa berezia egin nuen. Erantzuna honako hau da: Usurbil lau aldiz iritsi da Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketako finalera. Ez zen galdera zaila, ezta? Askok asmatu dezuten arren, Joxe Luis Arrastoak izango du Forumen 21.000 pezetako erosketak egiteko aukera.

Noaua!ko fax zenbaki berria honako hau da: 943 37 25 02

Apirilean Noaua!ko egoitzan izan genituen kalteen ondorioz, hainbat aldaketa egin behar izan ditugu. Hori dela eta, gaur egun fax zenbaki berria dugu: **943 37 25 02**. Telefono zenbakia berdina izaten jarraitzen du; **943 36 03 21**.

Honetaz gain, gogoratu gure e-maila **noaua.k.e@euskalnet.net** dela eta laster beste helbide berri bat izango dugula. Datorrean alean emango dizuegu helbide berri honi buruzko xehetasun gehiago. Bide batez, Noaua!ko web orria ere zuen zerbitzura dagoela gogorarazi nahi dizuegu, gure aldizkariari buruzko edozein kontsulta egin ahal izateko eta nahi adina aldiz bisitatzeko.




TOLARE
 SAGARDOTEGIA



25.
 urteurrena

SAIZAR

Betiko Sagardoa

Kupeletik mahaira,
 Ohizko jaki gozoeekin batera,
 Dasta ezazu txotxeko sagardoa gure sagardotegian.

Xipristin, Xaplasta...



Takolo Pirritx
eta Porrotx

PARRANDAN

2001EKO PLIS PLAS TXALO TA JOLAS

EGITARAUA



Ekainaren 17an Takolo, Pirritx eta
 Porrotx
 arratsaldeko 6tan
 Kalezarren



